




LABAIEN
www.labaien.com

LABAIEN

Polikarpa.– Ezkurra aldean gertatu zaizkionak

Ni Labaindarra naiz, torri nitzen Ezkurraa bizitzera, ta bizitzera torri, ta baserri zar baten sartu nitzen, dena zorrak eramana, ta... bealaxe gizona hil zatzen, ume bat yayoa, bestea tripen, behie lotzen ez nakin, hure mixeria, nolapattere, nolapattere beik lotzen nittun, ta, gero umea yayo zeen, ta biekin bakar-bakarrik geldittu nitzen, majin bat negar in dut, gero polliki-polliki nola-patt aurea atea giñen, ta guañ mixeria besterik deus ere ez, alaba bat ezkondu zen, geo yun tzan Leitzera, bestia itxiin, ta hementxe ittok zortan bizi gera, itxe ya hondatuan, hure mixeria, herrin iñork ezkatu kusi nahi...

Bai, onak badire biño baita gaxtuk ere, aziendak sartzen zazkigu sorutan, ta makilka ibiltzen ttigute, ta denuntziatu re bai, hameka near bai itten dugu, aurr'hortan autobusa yo ziun bihorrak, ta berrogeita hamar milla duro denuntzia, ta pestak tziren, herrira azaldu gabe eondu giñen. Gero baduu auzon gizon bat Koxko izena duna, beti zelatan ibiltzen zaigu, gaur ere txerrik harpatu soroan, ta mezaa yoteko on ezkala utzi gattu: «Aizan hi, txerrik hor ttun», da: «gureak ez ttuk», da: «zuenak ttun bai», oaintxe eraman ttat itxea ta, gizon madarikatu hura, beti gure atzetik ibiltzen baita...

Bai haundiok badire, yon den urteen alaba gaizki ibilli zen, ta medikuz mediku ibilli zen, ta, gaixoak hestetako miñe izaki, ta fama txar guzik atera zittioten, dana gezurretan, hameka near in giñun, yendea beti erraaten etzala erretiratzen biño argitzeako tortzen da itxera ta, ni bakar-bakarrik gauen, batek operazio dula, besteak eztakit zer dula, ta yendek, iñork ere ezkatu kusi nahi, han ere berrogei milla duro pagatu nittun denuntzia.

Gaur ere bagiñun politta, mezaa yoten hasi gera, ta: «behorrak hanka hautsia dula», ta: «behorrak hanka hautsi, neska?» Kustera yon gera, ta makillazua mana, behorra mainguka, batere ezker mezaa yon, mezaa bienaarren ogia kartzeko asmoa nun, aste guzian ogirik gabe, ta batere ogirik gabe, hementxe geldittu behar gaztaiña eosia yanaz, near in ta near in, «Marijexux!, behorak hanka hautsia din, hanka hautsia din, Marijexux!, hanka hautsia din, yon beharko un albaiterongana», ta: «albaiterongana nola yoen zara botikak ematten battu diruik ez tugu pagatzeko», ta: «dirua, nonbatten

billatuko iñau, neska», ta: «bai, ze billatu behartzu!, neonek konponduko diot, leno re gure osabak eurrekin yarri zion hanka», «—bai, eurrekin yarri zionan biño kangrena sartu ta hill hunan ordea», ta: «bai, hil zen biño honek axal xamarrik du, honek paratuko dio polliki-polliki» ta: «eon ixillik, eon ixillik, sei zan, Marijexux, sei zan, kar tzan albaiteroa», ta: «nik eztut albaiteroik karko» ta, bere hortan behorra utzi, ta Bordatxora yun tzen, ta batere eztakit noiz torri zen, biño goizen ni esnatzeako hemen tzen, hau mixeria...

LABAIEN

Polikarpa.-Ezkurra aldean gertatu zaizkionak

Ni Labaindarra naiz, etorri nintzen Ezkurrara bizitzera, eta bizitzera etorri, eta baserri zahar batean sartu nintzen, dena zorrak eramana, eta... berehala-xe gizona hil zitzaidan, ume bat jaioa, bestea tripan, behia lotzen ez nekien, hura miseria, nolabait ere, nolabait ere behiak lotzen nituen, eta gero umea jaio zen, eta biekin bakar-bakarrik belditu nintzen, makina bat negar egin dut, gero poliki-poliki nolabait aurrera atera ginen, eta orain miseria besterik deus ere ez, alaba bat ezkondu zen, gero joan zen Leitzara, bestea etxean, eta hementxe itoak zorretan bizi gara, etxe ia hondatuan, hura miseria, herrian inork ez gaitu ikusi nahi...

Bai, onak badira baina baita gaiztoak ere, aziendak sartzen zaizkigu soro-etan, eta makilka ibiltzen dizkigute, eta denuntziatu ere bai, hamaika negar bai, egiten dugu, aurre horretan ¹ autobusa jo zigun behorrak, eta berrogeita hamar mila duro denuntzia, eta festak ziren, herrira azaldu gabe egon ginen. Gero badugu auzoan gizon bat Koxko izena duena, beti zelatan ibiltzen zaigu, gaur ere txerriak harrapatu soroan, eta mezara joateko on ez garela ² utzi gaitu: «Adizan hi, txerriak hor ditun», eta: «gureak ez dituk», eta: «zuenak ditun, bai», oraintxe eraman ditiat etxera eta, gizon madarikatu hura, beti gure atzetik ibiltzen baita...

Bai handiagoak badira, joan den urtean alaba gaizki ibili zen, eta medikuz mediku ibili zen, eta gaixoak hestetako mina izaki, eta fama txar guziak atera zizkieten, dena gezurretan, hamaika negar egin genuen, jendea beti erraten ez zela erretiratzen baina argitzerako etorzen da etxera eta, ni bakar-bakarrik gauean, batek operazioa duela, besteak ez dakit zer duela, eta jendeak, inork ere ez gaitu ikusi nahi, han ere berrogei mila duro pagatu nituen denuntzia.

Gaur ere bagenuen polita, mezara joaten hasi gara, eta: «behorrak hanka hautsia duela», eta: «behorrak hanka hautsi, neska?» Ikustera joan gara, eta makilazoa emana, behorra mainguka, batere ez gara mezara joan, mezara bidenabarrean ogia ekartzeko asmoa nuen, aste guzian ogirik gabe, eta batere ogirik gabe, hementxe gelditu behar gaztaina egosia janaz, negar egin eta negar egin: «Marijesus!, behorrak hanka hautsia din, hanka hautsia din, Marijesus!, hanka hautsia din, Marijesus, hanka hautsia din, joan beharko dun albaiteroarengana», eta: «albaiteroarengana nola joanen zara botikak ematen baditu dirurik ez dugu pagatzeko», eta: «dirua, nonbaiten bilatuko dinagu,

(1) Lehengoan: duela egun batzuk.

(2) Gauza ez garela.

neska», eta: «bai, zer bilatu behar duzu!, neronek konponduko diot, lehenago ere gure osabak egurrekin jarri zion hanka», «—bai, egurrekin jarri zionan baina kangrena sartu eta hil hunan orde», eta: «bai, hil zen baina honek azal samarrik du, honek paratuko dio poliki-poliki», eta: «egon isilik, egon isilik, segi ezan Marijesus, segi ezan, ekar ezan albaitea», eta: «nik ez dut albaitea ekarriko», eta bere horretan behorra utzi eta Bordatxora joan zen, eta batere ez dakit noiz etorri zen, baina goizean ni esnatzerako hemen zen, hau miseria...